

Jurgi Ekiza

*Baiona
Lapurdi (1980)*

Aurkibidea

Biografia



Baionan jaio eta hezitako euskalduna da Jurgi Ekiza. Bere ama hizkuntza euskara izan arren, nerabezaroan guztiz galdu zuen. Hala ere, gerora AEKn ikasteko hautua egin zuen, eta gaur egun bere laneko tresna da euskara. Izan ere, Willis Drummond taldeko abeslari eta konposatzailea da.

Zintak

BAO-002

- **Proiektua:** Periferiaren mugak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aizkorbe Zabalza, Ekhiñe - Egibar Izeta, Irati - Zaldia Tapia, Irene
- **Data:** 2021-03-29
- **Iraupena:** 26 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Egibar Izeta, Irati

Pasarteak

1. Euskararekin izandako harremana

- **Erref:** BAO-002/001
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:05:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Jurgi Ekizak etxean ikasi zuen euskara, ama euskalduna baitzen. Hala ere, 7 urterekin frantsesez bakarrik zen eskola batean hasi eta euskara galdu zuen. Helduagoa zenean, arrazoi ezberdinengatik AEKn berreskuratu zuen euskara.

2. Euskal komunitatea Baionan

- **Erref:** BAO-002/002
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:05:15. **Bukatu:** 00:07:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Baionan euskararekiko egoera berezi bat dagoela esaten du Jurgik. Euskarak, bere ustez, euskal komunitate baten ateak irekitzen dituelako.

3. Euskal kultura eta euskara

- **Erref:** BAO-002/005
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura

Laburpena:

Harremana badago euskararen eta euskal kulturaren artean. Tresna ezberdinei buruz hitz egin du Jurgik: musika, Herri Urrats, "Euskoa"...

4. Euskal Periferia

- **Erref:** BAO-002/006
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 00:12:08. **Bukatu:** 00:16:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Zentro bat eta periferia bat baino Euskal Herriko beste lurraldeetan gertatzen ez den egoera berezi bat ikusten du Jurgi Ekizak Ipar Euskal Herrian.

5. Egun oso bat euskaraz Baionan

- **Erref:** BAO-002/007
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:16:32. **Bukatu:** 00:18:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskararen inguruko leloei egokitu behar direla uste du Jurgi Ekizak. Izan ere, Baiona ez da hiri euskaldun bat, egun oso bat euskaraz bizi ahalko bazinen ere. Noski, leku gutxitara joanda.

6. Euskaraz kantatzeko hautua

- **Erref:** BAO-002/008
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:18:42. **Bukatu:** 00:21:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Willis Drummond taldeko abeslari eta konposatzailea da Jurgi. Berak euskaraz kantatzeko hautua egin zuen arrazoi ezberdinengatik.

7. Euskararen nortasuna

- **Erref:** BAO-002/009
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:21:17. **Bukatu:** 00:23:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Beste gauza batzuen artean, bizitzeko eta mundua ikusteko modu bat eman dio euskarak Ekizari.

Ekiza, Jurgi | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com